

Eriotzaren Sagarra

Egun baten, sagutxu bizkor batek, ganbarako leiostik kalera begira egola, etxe-ondoko bide-ertzean, itxura oneko sagar bat egoala oartu eban. Eta ariñeketan bertaratu ta sagarragaz jaubetu zalakoan, pozez heterik esan eban :

— Onako sagarrik ikusteko be ! Orain berau, neuk artu dodan ezkeru, neure neurea dok !

Ori esatean baña, etxeko katu baltzak, arrapaladan jatsitá, sagutxuari, bere erpez zorrotzakaz zauri mingarriak egiñaz, sagarra beinge baten kendu eutson. Eta katuak be, sagarragaz jaubetu zalakoan, pozez esan eban.

— Au dok gauzaren ederra !... Orain berau neure neurea dok !

Gerotxuago barriz, katuari erpietan lastankiro eukan sagarra, itzulipurdika agertu zan tximiñuak kendu eutson. Eta tximiñuak be, musturragaz kiñuka ebillan artean, zugatz erpiñera igota, igaliari begira esan eban :

— Ze sagu ta ze katu !... Indarra beti nagosi ! Sagar eder ori, orain neurea az...

Orretan, odei artetik arrano andi bat ego-zabalez jatsi zan. Eta arrano andi arek be, ikusiriko igalia gura ixan ebalako, bere moko ta erpe zorrotzakaz, tximiñuari gogorkiro eginda, aitaturiko sagarra indarrez kendu eutson.

Arranoa be, igaliagaz pozik egoan ; eta labar-ganean bere lumak arro-arrozik igituten ebazan artean, esan eban :

— Neure ego-zabal eta moko ta erpe zorrotzari eskar, sagar eder eder au neure neurea baño eztok...

Andik geroago, baña, mendi-zear joan zan eiztari batek, pozaren pozez zabar-ganean egoan egoan arranoa, izkilluaren bidez, bat batez erail eban. Eta arranoaren erpietan egoan sagarra, lastankiro kolkoan sartuta, mendi-galurreko landara ezli bitsetan joan zan. Eta landatxu aretan zuti ta fente egoalarik, arro arrozik esan eban :

— Sagar eder eta atsegingarri onen billa amaikatxu bidar billi nok ! Billiak ibilli ta alegiñak alegin arren, baña, gaur arte ezin ixan yuat lortu... Gaur baña, zoriak ala gura dabelarik, igali onegaz neure aboa gozotuefa neure biotza poztu al-ixango yuataz... Au dok poza !... ta neurea dok !... Indarra beti nagosi.

Ta ori esanda, sagarra, une artan aboratuteko asmuagaz, aizlo zorrotz bategaz erdi-bi egin eban. Arra, andia ta ikatza lakoxe balbaltza zan.

Eta ar bildurgarri arek, abots lakar eta itzalez esan eutson ! :

— Sagarra irea ba dok... neu be eurea nok !... Ori entzunik gizona estutu zan, zurbildu zan ; eta ikararen ikaraz, lurrera zerraldo jausi zan.

Sagar barrutik irten zan arra, eriotzaren arra izan zan...